

EUSKARA URRATSEZ URRATS

Begoña Errazti

Eusko Alkartasunako Lehendakaria

Helbide elektronikoa: prentsa.lehen@euskoalkartasuna.org

Azken mende laurdenean, eredu linguistikoei dagokionez irakas-sisteman bide luzea egin baldin bada ere, oraindik ere lan sakona egin behar da euskararen presentzia gizartean erabat zabaltzeko tresna baliagarria eta erabilgarria izan dadin eguneroko bizitzaren esparru guztietan; ez bakarrik eskoletan edo etxean, baita ere administrazio osoan, lan munduan, esparru akademiko eta teknikoan, etab. Horretarako, legea aldatu behar da, ez bakarrik hezkuntzan, baita beste esparru guztietan ere.

Egia da azken berrehun urteetan euskal hezkuntzak aldaketa sendoa jasan duela, garapen hau erabat ezberdina izan bada ere herrialdearen arabera. Duela berrehun urte, jakina denez, Euskal Herriko ikasle gehienek ama-hizkuntza zen euskara eskola-mundutik aski zokoratua zegoen. Orduan, euskal edo ele biko dotrina-liburua buruz ikastera mugatzen ziren neska-mutil horiek eta euren eskola-maisuek euskararekin zuten kontaktu landu nagusia (eta askotan bakarra). *Pasabideko irakaskuntza elebidunak* indartu ziren gero, eraztun bidezko elebakartasun behartuaren ordeiz. Etxeko, auzoko, eta lagunarteko euskaratik gizartearen esparru jaso-formaletan nagusi zen erdarara lehenbailehen pasatzeko pentsatuak zeuden irakasbide haiek nagusiki. Orduko xedeak eta bideak ezagutu nahi dituenak on luke, orain ere, Astigarragaren 1825eko ikasliburua, Iturriagaren 1841eko eta 1842ko hirurak, eta Egurenen 1867koa (1876an birmoldatua) patxadaz eskuztatzea.

Oso antzeko bidetik ibili ziren Iparraldean 1852ko frantses-euskara metodoa prestatu zenean ere. Helburu nagusia umeek lehenbailehen eta ahalik eta ongien erdara ikastea izanik ere, guztiek zuten albo-asmo sendoa, inoiz ezkutatu gabea: bertako eskola-umeak euskara idatziarekin kontaktuan jartzea eta, honela, haurrak ele bietan alfabetatzea.

Ele biko eskolatze molde horiek indar ohargarria izan zuten, jakina denez, 1820 ingurutik aurrera, hamarkada luzez. Gero, batez ere 1876tik aurrera kontuak okerrera egin ondoren, saio bizi eta sendoak ekarri zituen XX. mendeak euskarazko irakaskuntzaren alde: bai mende hasieran eta bai gerra aurrean (eta gerra garaian), ama-hizkuntzaren irizpidean oinarritu ziren saio horiek, batez ere. Eskola barruan euskara-erdarek leku konpartitua eskainiz eta hizkuntza ahula, euskara, (hiztun-elkartea bere osoan hartuz batetik, ikaslearen beraren on-beharra zapaldu gabe bestetik) indarberritzeko asmo garbiz.

Jakin badakigu saio horiek eten egin zirela, indarrez. Badakigu, orobat, handik gutxira (berrogeita hamarreko eta hirurogeiko hamarkadan)

Azken mende laurdenean, eredu linguistikoei dagokionez irakas-sisteman bide luzea egin baldin bada ere, oraindik ere lan sakona egin behar da euskararen presentzia gizartean erabat zabaltzeko tresna baliagarria eta erabilgarria izan dadin eguneroko bizitzaren esparru guztietan; ez bakarrik eskoletan edo etxean, baita ere administrazio osoan, lan munduan, esparru akademiko eta teknikoan, etab. Horretarako, legea aldatu behar da, ez bakarrik hezkuntzan, baita beste esparru guztietan ere.

Espainiako 1978ko Konstituzioa eta Frantziako legedia alde batera utziz -ez baitute euskararen presentzia eta garapena aitortzen-, egia da Gernikako Estatutuak (1979) euskararen irakaspena bermatzen duela, baina ez du inola ere balio izan gure hizkuntza espazio guztietan errealitate bat bihurtzeko. Ezta esparru publikoan ere; zer esanik ez ekimen pribatuan!

indar berriz ekin zitzaioela saioari, euskara eskolara ekarri eta hizkuntza ahula indarberritzeko. Hor dute egungo ikastola gehienek, ongi ezaguna denez, beren abiapuntu hurbil nagusia.

1978tik aurrera, eta 1983ra bitartean, agintekera zaharra amaitzeaz bat (Francoren diktadura, hain zuzen ere) elebiko irakas-sistema elebiduna eratzeari ekin zitzaion. Lege hutsune nabarmen horretatik hasita, oinarritik eutsi behar izan zitzaion egoerari, beste hainbat arlotan bezala.

Bertako hainbat aditu eta atzerriko zenbait espezialista (William F. Mackey, Renzo Titone,..) kontuan hartu ziren ele biko irakastereduen sistema eratzerakoan: horrela sortu ziren A, B, C eta D ereduak, egungo hiru eredu oinarrian zeudenak.

Kontu horiek ez ziren, ordea, urrundik ere, edukatibo eta psikolin-guistiko huts. Horren aurretik eta horren gainetik, kontsiderazio soziokulturalak eta, are gehiago, soziopolitikoak, izan ziren irakas-sistema osoa berritzera eraman zutenak. Aldaketa politikoak hezkuntza sistemaren goitik beherako berreraketa ekarri zuen. Euskal Herrian, logikoa denez, politika horrek urteetan zapalduta egon zen gure hizkuntzaren berreskurape-na eta normalizazioa zuen helburu, hizkuntzari dagokionez.

Espainiako 1978ko Konstituzioa eta Frantziako legedia alde batera utziz —ez baitute euskararen presentzia eta garapena aitortzen—, egia da Gernikako Estatutuak (1979) euskararen irakaspena bermatzen duela, baina ez du inola ere balio izan gure hizkuntza espazio guztietan errealitate bat bihurtzeko. Ezta esparru publikoan ere; zer esanik ez ekimen pribatuan!

Nafarroari dagokionez, egungo legediak nafarren hizkuntza eskubi-deak ukatzen ditu herrialde honen zati handiengan. Foru Hobekuntzak eta ondorengo 1986ko Nafarroako Euskararen Legeak euskara nafar hizkuntza dela aitortzen dute, eta babestera behartzen dituzte erakundeak. Baina ofizialtasuna soilik zati batean ezartzen dute, beraz, euskaraz eredu publikoan ikasteko aukera, edota administrazioan erabiltzeko posibilitatea, besteak beste. Izan ere, nahiz eta 'teorian' (legeak dioenez) gure hizkuntza bultzatzea behartuta egon, Nafarroako Gobernuak argi eta garbi lan egin izan du azken urteotan aurkako bidean. Hau da, 2000 urtetik aurrera onartu dituen arauak euskararen presentzia, balorazioa oposaketetan, eta erabilpena administrazioan gutxietsi edo desagertarazi dute.

Beraz, eta hezkuntzari dagokionez euskararen garapena positiboa baldin bada ere, urtez urte, bai Autonomi Erkidegoan bai Nafarroan (Iparraldean euskarazko eredu bakarra ikastolek eskaintzen baitute), oraindik ere gainditu beharreko mugak oso latzak dira herrialde guztietan, gure hizkuntza benetan normalizatu dadin.

Izan ere, gizartea horren alde dago, datuek adierazten dutenez. Hala, Autonomi Erkidegoan D ereduak aukeratzen duten familiak urtero gora doaz (% 63,5 2006–2007 ikasturterako). B ereduak % 26,3k aukeratzen du, eta A ereduak, % 9,6k, gero eta gutxiago. Nafarroan ere norabidea positiboa da. Traba guztien gainetik, D ereduak gora doa, legea bera euskararen gara-

pena bermatzeko baino mugatzeko pentsatuta dagoen arren. Bestalde, orain hasi dira emaitzak ezagutzen, derrigorrezko eskolatzeko aldia amaitu duten ikasleen euskarazko hizkuntza gaitasunari buruzko datuak, beste hizkuntza batzuk ebaluatzeko erabiltzen diren irizpide berdinekin.

Hau dela eta, gaur egun ikastereduei buruzko eztabaidaren ardatza orain dela 25 urte onartu zen eredia bera gainditzeko aukerak eta oinarriak izan behar dute, inolako zalantzarik gabe.

Ondorengo galdera hauei erantzun beharra izango da etorkizunera-ko oinarri sendoak ezartzeko: zer neurri hartu behar dira, hemen eta orain, ikasleen euskarazko trebetasunak garatzeko, osatzeko eta hobetzeko? Zer egin liteke irakasleen prestakuntza alorrean, zer kurrikulum diseinuan, zer metodologia egokiagoak aplikatzeko, eta zer mailaz maila lortuz doazen emaitzak neurtzeko eta hobetzeko? Zer dago eskolaren esku, hizkuntza indarberritu eta luze-zabaleko elebitasun funtzional orekatua eskuratzeko? Zer gehiago egin dezake eskolak, euskararen erabile-
ra (eskola-esparruan eta handik kanpora) indartzeko? Zer egin behar da eskolatik kanpora, EAEko lege helburu nagusiak betetzeko?

Ikastereduen inguruko azterketa eta, horren ondorioz bere aldaketa egin beharra dagoela argi dago. Baina ez hori soilik. Euskara oinarritzko tresna kulturala da gure herriarentzat. Bere garapena ezin da hezkuntza-
ren ikuspuntutik bakarrik aztertu, ezta eredu linguistikoenetik ere. Gure hizkuntza-
ren garapena gizartean ematen zaion erabilpenagatik baloratu behar da. Zenbat erabiltzen den, zer esparrutan bai eta zeinetan ez, zer nolako proiektzioa daukan eta, are gehiago, zer egiten dugun erakunde ezberdinetatik (Gobernutik nahiz Legebiltzarretik, udaletik nahiz elkarte publikoetatik, noski administrazioan) prozesu hau bermatu eta honi beharrezko bultzada emateko.

Konpromezu hau ezin da lege batean soilik hezur-mamitu; esparru guztietan hartu behar dira neurriak helburu hau bideratzeko. Komunikabi-
bideek, unibertsitateak, mundu akademiko eta teknikoak, badute zeregin garrantzitsua helburu honetan: gure hizkuntza bereganatu eta euskaraz lan eginez, goi mailako komunikazio tresna bihurtzearena. Bestalde, lan munduan eguneroko komunikazio tresna bihurtzeko erronkari eutsi behar zaio, euskaraz hitz egiteko gaitasuna behar bezala baloratuz enpre-
setan, zerbitzuetan eta, are gehiago administrazioan; ikasteko langileei erraztasunak, bideak eta aukerak emanez eta sustatuz, etab, euskara, gu guztion hizkuntza, Euskal Herrian bizi eta lan egiteko (esparru eta maila guztietan) benetan bide eta baliabide izan dadin.■

Izan ere, gizartea horren alde dago, datuek adierazten dutenez. Hala, Autonomi Erkidegoan D eredia aukeratzen duten familiak urtero gora doaz (% 63,5 2006–2007 ikasturterako). B eredia % 26,3k aukeratzen du, eta A eredia, % 9,6k, gero eta gutxiago. Nafarroan ere norabidea positiboa da. Traba guztien gainetik, D eredia gora doa, legea bera euskararen garapena bermatzeko baino mugatzeko pentsatuta dagoen arren.